





Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

ZUZENBIDE
FAKULTATEA
FACULTAD
DE DERECHO



ZUZENBIDE FAKULTATEA

**Gratu Bikoitza: Enpresen Administrazio eta
Zuzendaritza + Zuzenbidea / Zuzenbidea / Kriminologia**

www.ehu.eus

Zuzenbide Fakultatea



Gratu Bikoitza: Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza + Zuzenbidea **6. or.** / Zuzenbidea **8. or.** / Kriminologia **10. or.**

Gizarte justuagoa lortzen lagunduko duten profesionalak prestatzen ditugu

Zuzenbidearen eta Kriminologiaren arloetan maila eta prestigio handia duen unibertsitate ikastegi bat gara.

Ikasleei emandako prestakuntzaren oinarria lege eta kriminologiako lanbideetan aritzeko gaitasun erreala eta eraginkorra lortzea da. Irakaskuntza metodologian, ikasketa teoriko trinkoak eta prestakuntza praktikoa uztartzen dira, nola unibertsitateko espazioetan, hala bulego profesionaletan, enpresetan eta erakunde publikoetan.

Talde txikiak, metodologia berria, mintegiak eta gelako praktikak... Horren emaitza gisa, eskaintzen den formakuntza maila handikoa da, ikasteko gogoia eta denbora eskatzen dituen, eta lan arloan arrakasta tasa handia du.



FAKULTATEA ZENBAKITAN

2+1
gradu gradu bikoitz

2
unibertsitateko master

4
berezko master eta graduondoko

1
Justizia Sozialaren aldeko Klinika Juridikoa

1
nazioarteko graduoko titulu bikoitz

2
doktorego programa



Zuzenbide Fakultatea

Bizkaiko Campusa
Sarriena auzoa, z/g.
48940 Leioa · Bizkaia

Gipuzkoako Campusa
Manuel Lardizabal pas. 2.
20018 Donostia · Gipuzkoa

946 013 144
secretaria.fac.derecho-bi@ehu.eus
www.ehu.eus/eu/web/zuzenbide-fakultatea/home

943 01 8084
secretaria.fac.derecho-gi@ehu.eus
www.ehu.eus/eu/web/zuzenbide-fakultatea/home



GURE AZPIEGITURAK

Irakaskuntzarako guneak:

- 30 ikasgela

Ikasleek beren kabuz erabiltzeko guneak:

- 3 ordenagailu gela
- Epaiketa aretoa

Beste gune batzuk:

- Paraninfoa
- Gradu Aretoa
- Bideokonferentzietarako gela



Estatuko hirugarren Zuzenbide Fakultaterik onenean ikasi.

* 2019ko Shanghaiko Unibertsitateen Sailkapena.




MUGIKORTASUN PROGRAMAK

SICUE
Espainiako Estatuko unibertsitateak

ERASMUS +
Europako unibertsitateak

Latinoamerika eta beste norako batzuk

- 2. mailatik aurrera
- Lauhileko edo ikasturte osoa



[Hemen](#) aurkituko duzu ikastegi honetako mugikortasun-programaren informazio guztia.

IRAKASKUNTZA ELEANIZTUNA

Gradu guztiak:

Euskaraz edo gaztelaniaz. Irakasgai batzuk ingelesez egin daitezke.


UNIBERTSITATEKO PRAKTIKAK

- 4. maila: nahitaezko kanpo praktikak (12 kreditu)
- Justizia Sozialaren aldeko Klinika Juridikoa (JSKJ): tutoretzapeko kanpo praktikak

GRADU AMAIERAKO LANA

4. maila: GRAL (6 kreditu Zuzenbideko Graduan eta 18 kreditu Kriminologiako Graduan).

NON ESKAINTZEN DIRA GURE GRADUAK?



Bizi Gipuzkoako eta Bizkaiko Campusak!



Gipuzkoa

Bizkaia



Ikasleak

+10.000

+22.000



Ikastegiak

9

9



Bibliotekak

3

6

Campus guztiek dituzte:



Enplegu Gunea



Kiroldegi bat
Itunpeko kirol zentroak



Kultura,
musika
eta arte jarduerak



Unibertsitate egoitza bat
Ostatu zerbitzua:
ostatua aurkitzen lagunduko dizugu



Ikasi hizkuntzak
Hizkuntza egiaztagirak

ENPRESEN ADMINISTRAZIO ETA ZUZENDARITZA + ZUZENBIDEA Gradu Bikoitza



Jakintza adarra: **Gizarte eta Lege Zientziak**

Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako eta Zuzenbideko Gradu Bikoitzak prestakuntza erabatekoa eta osoa emango dizu, arlo juridikoan nahiz ekonomikoan. Jarduera juridikoak eta enpresarialak garatzeko aukerak identifikatzen eta aurreikusten ikasiko duzu, enpresa edo erakunde bat administratzen, antolatzen eta zuzentzen, eta zalantza egoeretan erabakiak hartzen. Gainera, zeure burua prestatuko duzu berrikuntza kudeatzeko eta zuzendaritzako trebetasunak aplikatzeko, baita arlo juridikoko jarduera profesioletarako ere.

Gradu bikoitzaren bidez, ikuspegi kualifikatu bat eskuratuko duzu, gaitasun kritiko handiagoarekin. Titulu bikoitz honek gaitasuna emango dizu zeregin espezifikokoak egiteko enpresetan eta erakundeetan, zeure burua egokituta egoera juridiko, ekonomiko, sozio-politiko eta teknologiko konplexu eta aldakorretara, estatuko nahiz nazioarteko ikuspegi batetik.

Gainera, seigarren mailan, ikasitako guztia praktikan jartzeko, nahitaezko tutoretzapeko praktikak egingo dituzu, erakunde publikoetan edo pribatueta.

Gradu Bikoitz hau 2 Campusetan eskaintzen da:

- Bizkaiko Campusa: Ekonomia eta Enpresa Fakultatean (Sarriko), Bilbon.
- Gipuzkoako Campusa: Donostian, Zuzenbide Fakultatean eta Ekonomia eta Enpresa Fakultatean.

Hemen aurkituko duzu gradu honi buruzko informazio zehatzagoa.



[Bizkaia](#)



[Gipuzkoa](#)

Titulazio bikoitz honek gaitasuna emango dizu...

Enpresa baten –publiko nahiz pribatu, bertako nahiz atzerriko– edozein arlo funtzional kudeatzeko, integratzeko, antolatzeko eta zuzentzeko; Zuzenbide Publiko eta Pribatuko, eta enpresen administrazio, kudeaketa eta zuzendaritza arloko oinarri terminologikoak eta ezagutza mailakoak ulertzeko; arazo juridikoak, ekonomikoak eta finantzarioak konpontzeko, erabakiak hartuta era sortzailean.

Irteera profesionalak:

Enpresa arloan eta arlo juridikoan, hainbat erantzukizun zereginetan:

- Enpresetako edo erakundeetako zerbitzu juridikoak
- Bulegoko abokatua edo estatuaren abokatua
- Enpresa aholkularitza
- Aholkularitza
- Notarioritza eta erregistroa
- Estrategia zuzendaritza
- Ekonomia-finantza kudeaketa eta kudeaketa fiskala
- Giza baliabideen kudeaketa
- Kontabilitatea eta ikuskaritza
- Nazioarteko marketinaren eta merkataritza marketinaren kudeaketa
- Analisi ekonomikoa
- Banka eta finantza zerbitzuak

Gainera, zure enpresa proiektua martxan jartzeko tresnak eta ezagutzak izango dituzu.

Enpresa mundua eta errealitate ekonomikoa, soziala eta politikoa interesatzen bazaizkizu, jakin-nahia baduzu, pertsona ekintzailea eta dinamikoa bazara, taldean aritzea atsegin baduzu, analisirako, gogoetarako, sintesirako eta kritikarako gaitasuna baduzu, eta gizarte gaiekiko sentikortasuna, argudiatzeko gaitasuna eta gatazkak konpontzen laguntzeko bokazioa, Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako eta Zuzenbideko Gradu Bikoitza duzu aukerarik onena.

IKASKETA PLANA (BIZKAIA)

LEHENENGO MAILA 75 kreditu (oinarrizko irakasgaiak)

1. lauhilekoa

- Ekonomiarako Sarrera I: Mikroekonomiaren Oinarriak
- Enpresa Ekonomiarako Sarrera
- Erromatar Zuzenbidea
- Konstituzio Zuzenbidea I
- Matematika I
- Zuzenbidearen Historia

2. lauhilekoa

- Ekonomiarako Sarrera II: Makroekonomiaren Oinarriak
- Historia Ekonomikoa
- Konstituzio Zuzenbidea II
- Matematika II
- Zuzenbide Zibila I
- Zuzenbidearen Teoria

BIGARREN MAILA 75 kreditu (oinarrizko 39 kreditu + nahitaezko 36 kreditu)

1. lauhilekoa

- Finantza Eragiketen Matematika
- Konstituzio Zuzenbidea III
- Kontabilitaterako Sarrera
- Mikroekonomia
- Nazioarteko Zuzenbide Publikoa I
- Zuzenbide Zibila II

2. lauhilekoa

- Administrazio Zuzenbidea I
- Enpresa Ekonomia: Antolakuntza eta Zuzendaritza
- Europar Batasuneko Zuzenbidea
- Finantza Kontabilitatea
- Zigor Zuzenbidea I
- Zuzenbide Prozesala I

HIRUGARREN MAILA 72 kreditu (nahitaezko irakasgaiak)

Urtekoa

- Zuzenbide Zibila III

1. lauhilekoa

- Administrazio Zuzenbidea II
- Estatistika eta Datuen Analisia
- Kostuen Kontabilitatea
- Merkataritza Zuzendaritza: Sarrera
- Zigor Zuzenbidea II

2. lauhilekoa

- Enpresari Aplikatutako Estatistika
- Goi Mailako Finantza Kontabilitatea
- Merkataritza Zuzenbidea I
- Merkataritza Zuzendaritza: Politikak
- Nazioarteko Zuzenbide Publikoa II

LAUGARREN MAILA 72 kreditu (nahitaezko irakasgaiak)

1. lauhilekoa

- Administrazio Zuzenbidea III
- Ekonometria
- Enpresaren Zerga Araubidea
- Finantza Zuzenbidea II
- Makroekonomia
- Zigor Zuzenbidea III

2. lauhilekoa

- Egitura Ekonomikoa
- Finantza Zuzendaritza: Finantzaketa
- Kontabilitateko Egoera Orrien Baterakuntza
- Merkataritza Zuzenbidea II
- Zuzenbide Zibila IV

BOSGARREN MAILA 66 kreditu (nahitaezko irakasgaiak)

1. lauhilekoa

- Estrategia Zuzendaritza: Enpresa Politika
- Finantza Zuzendaritza: Inbertsioak
- Kontabilitate Analisia
- Lanaren eta Gizarte Segurantzaren Zuzenbidea I
- Nazioarteko Zuzenbide Pribatua I
- Zuzenbide Prozesala II

2. lauhilekoa

- Enpresa Kudeaketarako Sistema Informatikoak
- Estrategia Zuzendaritza: Enpresa Hazkundera eta Garapena
- Lanaren eta Gizarte Segurantzaren Zuzenbidea II
- Nazioarteko Zuzenbide Pribatua II
- Zuzenbide Prozesala III

SEIGARREN MAILA 30 kreditu (praktiketako 12 kreditu + GRADU AMAIERAKO LANETAKO 18 kreditu)

- Nahitaezko Kanpoko Praktiak (Derecho)
- Zuzenbideko Gradu Amaierako Lana (6 kreditu)
- Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritzako Gradu Amaierako Lana (12 kreditu)

IKASKETA PLANA (GIPUZKOA)

LEHENENGO MAILA 75 kreditu (oinarrizko irakasgaiak)

1. lauhilekoa

- Ekonomiarako Sarrera I: Mikroekonomiaren Oinarriak
- Enpresa Ekonomiarako Sarrera
- Erromatar Zuzenbidea
- Konstituzio Zuzenbidea I
- Matematika I
- Zuzenbide Zibila I
- Zuzenbidearen Historia

2. lauhilekoa

- Ekonomiarako Sarrera II: Makroekonomiaren Oinarriak
- Historia Ekonomikoa
- Konstituzio Zuzenbidea II
- Matematika II
- Zuzenbidearen Teoria

BIGARREN MAILA 75 kreditu (oinarrizko 33 kreditu + nahitaezko 42 kreditu)

1. lauhilekoa

- Finantza Eragiketen Matematika
- Konstituzio Zuzenbidea III
- Kontabilitaterako Sarrera
- Mikroekonomia
- Nazioarteko Zuzenbide Publikoa I
- Zigor Zuzenbidea I
- Zuzenbide Zibila II

2. lauhilekoa

- Administrazio Zuzenbidea I
- Europar Batasuneko Zuzenbidea
- Finantza Kontabilitatea
- Zigor Zuzenbidea II
- Zuzenbide Prozesala I

HIRUGARREN MAILA 66 kreditu (oinarrizko 6 kreditu + nahitaezko 60 kreditu)

Urtekoa

- Zuzenbide Zibila III

1. lauhilekoa

- Administrazio Zuzenbidea II
- Estatistika eta Datuen Analisia
- Kostuen Kontabilitatea
- Merkataritza Zuzendaritzarako Sarrera
- Zigor Zuzenbidea III

2. lauhilekoa

- Enpresa Ekonomia: Antolakuntza eta Zuzendaritza
- Enpresari Aplikatutako Estatistika
- Merkataritza Zuzenbidea I
- Merkataritza Zuzendaritza: Politikak

LAUGARREN MAILA 72 kreditu (nahitaezko irakasgaiak)

1. lauhilekoa

- Ekonometria
- Finantza Zuzenbidea II
- Makroekonomia
- Merkataritza Zuzenbidea II
- Zuzenbide Prozesala II
- Zuzenbide Zibila IV

2. lauhilekoa

- Administrazio Zuzenbidea III
- Egitura Ekonomikoa
- Finantza Zuzendaritza: Finantzaketa
- Goi Mailako Finantza Kontabilitatea
- Nazioarteko Zuzenbide Publikoa II

BOSGARREN MAILA 72 kreditu (nahitaezko irakasgaiak)

1. lauhilekoa

- Enpresa Kudeaketarako Sistema Informatikoak
- Enpresaren Zerga Araubidea
- Estrategia Zuzendaritza: Enpresa Politika
- Finantza Zuzendaritza: Inbertsioak
- Kontabilitate Analisia
- Lanaren eta Gizarte Segurantzaren Zuzenbidea I
- Nazioarteko Zuzenbide Pribatua I

2. lauhilekoa

- Estrategia Zuzendaritza: Enpresa Hazkundera eta Garapena
- Kontabilitateko Egoera Orrien Baterakuntza
- Lanaren eta Gizarte Segurantzaren Zuzenbidea II
- Nazioarteko Zuzenbide Pribatua II
- Zuzenbide Prozesala III

SEIGARREN MAILA 30 kreditu (praktiketako 12 kreditu + GRADU AMAIERAKO LANETAKO 18 kreditu)

- Nahitaezko Kanpoko Praktiak (Derecho)
- Zuzenbideko Gradu Amaierako Lana (6 kreditu)
- Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritzako Gradu Amaierako Lana (12 kreditu)



ZUZENBIDEKO GRADUA

Jakintza adarra: **Gizarte eta Lege Zientziak**

Zuzenbidea gizartearen bizikidetzaren arautzen duten arauen multzo bat da, interes gatazkak konpontzea ahalbidetzen duena. Zuzenbidea edozein gizarteren funtzionamendu egokirako oinarria da; izan ere, gizartea osatzen duten pertsonen eskubideak eta betebeharrak ezartzen ditu, eta horregatik, hain zuzen, gure eguneroko bizitzaren esparru gehienei eragiten die.

Zuzenbidea bizirik dagoen zientzia bat da, etengabe eboluzionatzen ari dena. Izan ere, aldatzen dira herritarren beharrak, aldatzen da gizartea eta aldatzen dira legeak ere. Zuzenbideko Graduan prestakuntza osoa jasoko duzu, jarduera profesionalerako prestatuta egoteari begira, eta gizarte harremanen arlo guztietan planteatu daitezkeen arazo juridikoak konpontzeko gaitasuna eskuratuko duzu.

Abokatu lana bertatik bertara ezagutzeko eta horretan jarduteko, nahitaezko kanpoko praktikak egingo dituzu bulegoetan, aholkularitzetan edo erakunde publikoetan.

Horrez gain, aukera dago titulazio bikoitz bat lortzeko Kolonbiako Universidad Santo Tomas-ekin.

Analisi kritikorako eta argumentatzeko gaitasuna, gizarte sentsibilitatea eta ikasteko gogo handia baduzu eta, gainera, gizarte zuzenago baten alde lana egin eta arazoak konpontzen lagundu nahi baduzu, Zuzenbideko Gradua da zure lekua, zalantzarik gabe.

* Gradu hau Donostian eta Leioan ematen da.



[Hemen](#) aurkituko duzu gradu honi buruzko informazio zehatzagoa.

Titulazio honek gaitasuna emango dizu...

Zuzenbide publikoaren eta pribatuaren oinarri terminologikoak eta oinarriko jakintzak ulertzeko; arazo juridikoak konpontzeko, erabakiak sormenez hartuta eta askotariko egoerei aurre eginda; eta, arau aldaketetara eta egoera berrietara egokitze, gogoan izanda betiere ezinbesteko konpromiso etikoa eta gizarte, ekonomia eta ingurumen sentsibilitatea.

Irteera profesionalak:

Abokatutza Masterra egin ondoren, abokatu lana egin ahal izango duzu bulego, enpresa eta aholkularitzetan, esparru askotan:

- Orientazioa, hainbat arlotan: zergak, merkatuak, lana...
 - Giza baliabideak
 - Laneko segurtasuna eta osasuna
 - Kontabilitatea eta finantzak
- Administrazio publikoetan:
- Justizia (epailea, fiskala...)
 - Ogasuna (ikuskaritza...)
 - Notarioritza eta erregistroa
 - Kidego diplomatikoak

Baita nazioarteko erakundeetan ere: Europar Batasuna, Europako Kontseilua, Nazio Batuak, Lanaren Nazioarteko Erakundea, Munduko Merkataritza Antolakundea, etab. Eta irakaskuntza eta ikerketaren arloan.

IKASKETA PLANA

LEHENENGO MAILA 60 kreditu (oinarrizko irakasgaiak)

1. lauhilekoa

- Zuzenbide Zibila I
- Konstituzio Zuzenbidea I
- Erromatar Zuzenbidea
- Ekonomia
- Zuzenbidearen Historia

2. lauhilekoa

- Administrazio Zuzenbidea I
 - Konstituzio Zuzenbidea II
 - Europar Batasuneko Zuzenbidea
 - Zuzenbidearen Teoria
-

BIGARREN MAILA 60 kreditu (oinarrizko 6 kreditu + nahitaezko 54 kreditu)

1. lauhilekoa

- Administrazio Zuzenbidea II
- Konstituzio Zuzenbidea III
- Nazioarteko Zuzenbide Publikoa I
- Zigor Zuzenbidea I
- Zuzenbide Zibila II

2. lauhilekoa

- Administrazio Zuzenbidea III
 - Zuzenbide Prozesala I
 - Finantza Zuzenbidea I
 - Nazioarteko Zuzenbide Publikoa II
 - Zigor Zuzenbidea II
-

HIRUGARREN MAILA 60 kreditu (nahitaezko irakasgaiak)

1. lauhilekoa

- Zuzenbide Zibila III (urtekoa)
- Lanaren eta Gizarte Segurantzaren Zuzenbidea I
- Nazioarteko Zuzenbide Pribatua I
- Zigor Zuzenbidea III
- Zuzenbide Prozesala II

2. lauhilekoa

- Zuzenbide Zibila III (urtekoa)
 - Lanaren eta Gizarte Segurantzaren Zuzenbidea II
 - Nazioarteko Zuzenbide Pribatua II
 - Merkataritza Zuzenbidea I
 - Zuzenbide Prozesala III
-

LAUGARREN MAILA 60 kreditu (nahitaezko 36 kreditu + hautazko 18 kreditu + Gradu Amaierako Lana 6 kreditu)

1. lauhilekoa

- Zuzenbide Zibila IV
- Finantza Zuzenbidea II
- Merkataritza Zuzenbidea II

Hautazkoak

- Euskal Zuzenbide Zibila
- Kontzientzia Askatasunari buruzko Zuzenbidea
- Euskal Autonomia Erkidegoko Zuzenbide Publikoa
- Zuzenbidearen Historiaren eta Kulturaren Oinarriak
- Euskararen Arauak eta Erabilerak
- Komunikazio eta Argudiaketa Juridikorako Teknikak
- Lege Arloko Lanak eta Dokumentuak Prestatzeko Teknikak

2. lauhilekoa

- Nahitaezko Kanpoko Praktiak

Hautazkoak

- Komunikazioa Euskaraz: Arlo Juridikoa

GRADU AMAIERAKO LANA



KRIMINOLOGIAKO GRADUA

Jakintza adarra: **Gizarte eta Lege Zientziak**

Kriminologia diziplinarteko zientzia bat da, diziplina askoren ezagutzaz baliatzen dena; tartean, medikuntza, soziologia, psikologia, antropologia eta zuzenbide penala. Horren bidez, krimenaren, haren intzidentziaren, kausen, formen, ondorioen eta lege araudien gaineko ikuspegi global bat eman nahi da; biktimen arreta, delinkuentek eta gizarte kontrola deitutakoa ahaztu gabe.

Delituak prebenitzeko eta tratatzeko, biktima eta arau-hausleekin esku hartzeko eta, oro har, biztanleriaren segurtasuna hobetzeko zientzia ezagutzen aplikazioan aditu bat izateko prestatuko zaitu Kriminologiako Graduak. Delitua bera ikertzeaz gainera, sakon aztertuko dituzu delinkuentea, biktima eta delituen gizarte kontrolerako bitartekoak, eta gatazkak konpontzeko estrategiak diseinatzeko ikasiko duzu.

Eta ikasitako guztia praktikan jartzeko, bertatik bertara ezagutuko duzu kriminologiaren arloko profesionalak egindako lana, nahitaezko kanpoko praktiken bitartez.

Behaketa eta dedukzio gaitasuna, espirtu kritikoa, eta analisi eta sintesirako joera baduzu eta lana taldean egitea atsegin baduzu, Kriminologiako Gradua da zure aukera.

* Gradu hau Donostian ematen da.



[Hemen](#) aurkituko duzu gradu honi buruzko informazio zehatzagoa.

Titulazio honek gaitasuna emango dizu...

Portaera kriminalaren oinarri terminologikoak eta oinarritzko ezagutza antropologikoak, juridikoak, psikologikoak eta soziologikoak ulertzeko, baita gizarte sistemenak eta prebentzio erakundeenak ere; delinkuentekin eta biktimekin egin beharreko esku hartzeetan ezagutzak eta teknikak aplikatzeko, delinkuentzia prebenitzeko eta tratatzeko jarduera egokiak ezartzeari begira; eta, informazio esanguratsua sistematikoki bilatzeko, errealitateari eta informazio iturri dokumentalei behatuta.

Irteera profesionalak:

Kriminologiako Graduak oinarritzko ezagutzak eskaintzen ditu, honako ibilbide profesional publiko zein pribatu hauetan aplika daitezkeenak:

- Unibertsitate-eremuko ikerketa akademikoa
- Administrazio publikoa: segurtasun-, gizarte- eta laguntza-politikak diseinatzea tokiko, eskualdeko, estatuko edo nazioarteko administrazioan
- Justizia-administrazioa: auzitegiko txosten kriminologikoak egitea
- Justiziarekiko lankidetzaz-zerbitzuak: biktimei laguntzeko bulegoak, justizia errestauratiboko zerbitzua, bitartekaritza-zerbitzuak eta zigorrak kudeatzeko zerbitzuak
- Polizia eta segurtasuna hainbat kidegotan: tokikoa, autonomikoa, estatukoa (oposizio-lehiaketa bidez)
- Espetxeak (oposizio-lehiaketa bidez)
- Aholkularitza kriminologikoak eta sozialak
- Analista eta aholkulari kriminologoa profesional independente gisa
- Gizarteratzean eta justizia sozialean diharduten irabazi-asmorik gabeko elkarteak eta erakundeak
- Segurtasun pribatuko enpresak

IKASKETA PLANA

LEHENENGO MAILA 60 kreditu (oinarrizko 36 kreditu + nahitaezko 24 kreditu)

1. lauhilekoa

- Konstituzio Zuzenbidea I
- Zigor Zuzenbidea I
- Psikologiaren Historia
- Antropologiarako Sarrera I
- Kriminologiaren Printzipioak

2. lauhilekoa

- Administrazio Zuzenbidea I
- Zigor Zuzenbidea II
- Soziologiarako Sarrera
- Krime Arloko Psikologia
- Gizarte Psikologia

BIGARREN MAILA 60 kreditu (oinarrizko 24 kreditu + nahitaezko 36 kreditu)

1. lauhilekoa

- Zuzenbidea eta Kulturartekotasuna
- Zigor Zuzenbidea III
- Krimearen Fenomenologia
- Psikologiako Metodologia
- Biktimologia

2. lauhilekoa

- Gazte Delinkuentzia
- Zuzenbide Prozesala I
- Lege Medikuntza eta Auzitegi Zientziak
- Krime Arloko Politika
- Psikopatologia

HIRUGARREN MAILA 60 kreditu (Nahitaezko 42 kreditu + hautazko 18 kreditu)

1. lauhilekoa

- Datuen Analisia eta Diseinuak: Metodo Ez-esperimentalak
- Auzitegiko Psikopatologia
- Kartzela Sistemak

Hautazkoak

- Ekonomiari Lottutako Kriminalitatea
- Esku-hartze Psikosozialeko Programen Ebaluazioari
- Aplikatutako Diseinuak
- Euskararen Erabilerak Arlo Profesionalean
- Segurtasun Pribatuaren Araubide Juridikoa
- Osasuna eta Mendekotasun Nahasmenduak

2. lauhilekoa

- Gatazken Analisia eta Ebazpena eta Lankidetzarako Estrategiak
- Biktimen Analisia eta Tratamendua
- Desbideratzearen Soziologia
- Delitugilearen Tratamendu Psikologikoa

Hautazkoak

- Komunikazioa Euskaraz Arlo Profesionalean
- Adingabekoen Babes Juridikoa eta Familia

LAUGARREN MAILA 60 kreditu (nahitaezko 24 kreditu + hautazko 18 kreditu + Gradu Amaierako Lana 18 kreditu)

1. lauhilekoa

- Delituaren eta Zigor Kontrolaren Soziologia

Hautazkoak

- Ingurumen Kriminologia eta Hiri Segurtasuna
- Delituen eta Zigorren Bilakaera Historikoa
- Globalizazioa eta Zigor Sistema
- Kontzientzia Askatasunari buruzko Zuzenbidea
- Psikologia Juridikoa

2. lauhilekoa

- Zuzenbide Prozesala III
- Nahitaezko Kanpoko Praktikak

GRADU AMAIERAKO LANA



UPV/EHUren GRADUONDOKOEN ESKAINZA

Zure gradu-ikasketak amaitu ondoren, zure prestakuntza osatu ahal izango duzu graduondoko batekin. UPV/EHUK graduondoko 150 programa baino gehiago eskaintzen ditu zure etorkizun profesionala garatu nahi duzun alorrean espezializatu zaitez.



Gure unibertsitateko masterrak eta berezko tituluak hemen kontsulta ditzakezu:
www.ehu.es/eu/web/estudiosdeposgrado-graduondokoikasketak

Eskerrik asko Euskal Herriko Unibertsitatea aukeratzeagatik. Itxaroten dizugu.

Liburuxka hau informazioa emateko baino ez da.
Azken eguneraketa: 2023ko abendua.